

JARDUKETA-GIDA
HEGAZTI-USTIATEGIETAKO ARDURADUNENTZAT
ETA LANDAKO ALBAITARIENTZAT
HEGAZTI-GRIPEAREN SUSMOA DENEAN

araba 
foru aldundia
diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia  Diputación Foral
de Gipuzkoa

 **elika**
Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Etikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

NEIKER 
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

SARRERA

Hegazti-gripe oso patogenoa (HGOP) da hegazti-ekoizpenean eta -merkaturatzean erasana izan dezakeen arazo patologikorik nagusienetakoa.

Jatorri birikoa duen gaixotasun oso kutsakorra eta nahitaez jakinarazi behar da; OIE eta EBren zerrendan sartuta dago.

Dokumentu honen xedea da biosegurtasuneko prebentzio-neurriak hartzeko gida izatea, eta HGOP susmoa izanez gero jarduteko gida izatea ere nahi du; hegazti-ustiategiekin zuzeneko harremana duten langile guztientzako da.

HGOP sartu eta hedatu ez dadin egin da, baita gaixotasuna ahalik eta lasterren hautemateko ere, hala eginez gero, erantzun azkarra eta eraginkorra emango baita gaixotasuna kontrolatzeko; zenbait aholku ere badaude, hegaztiekin harremanetan dauden pertsonen osasuna bermatzeko.

Hori dela eta, gida honetan gaixotasunari buruzko laburpen bat dago, diagnostiko klinikoa, higiene-neurri orokorrak, diagnostikoa egiten duten albarituek egin beharreko jarduketak eta susmoren bat den kasuetan langile guztiak hartu beharreko biosegurtasuneko eta higieneko neurri nagusiak.

1. GAIXOTASUNAREN BERRI LABURRA

Hegazti-gripe (HG) infekzio oso kutsakorra eta erabat aldakorra da eta hegazti guztiei erasaten die, batez ere eskortakoei.

Gripearen eragilea *Orthomyxoviridae* familiako birus bat da, *Influenzavirus* generokoa. HGOPren andui gogorrena H5 eta H7 azpimotek eragiten dute, hilkortasun handia du **eskortako hegaztietan** eta **ugaztunetan** ere eragina izan dezake zenbaitetan, **gizakiak barne**. HGOP birusek ingurumen erresistentzia handia dute. Nahitaez aitortu beharreko animalien gaixotasuna da, eta pertsoneri erasan dakieke.

Hegazti urtar basati migratzaileak gordailu naturalak dira eta birusa eraman dezakete arnas hodian edo hesteetan, nahiz eta sintomarik ez duten izaten. Hegazti hauek migrazio ibilbidean hedatzen duten gaixotasuna, eskortako hegaztiekin harreman zuzena izateagatik edo baserri batetik bestera zeharkako harremana izateagatik.

Biosegurtasun neurriak muturrera eraman behar dira prebentziorako, hau da, eskortako hegaztien eta migratzaileen arteko harremana saihestu behar da, bereziki udazkenean eta neguan, urtaro horietan igarotzen baitira hegazti migratzaileak.


Gaixotasuna egiaztatzen denean, erasandako hegazti guztiak **akabatu** egin behar izaten dira gaixotasuna **kontrolatzeko**; txertoa jartzea ere prebentziorako kontrol-neurria da edo laguntzailea, agerraldi bat dagoenean.

Ezaugarri nagusiak:

- Oso kutsakorra, hegaztien artean oso azkar hedatzen da eta hilkortasuna % 100ekoa izan daiteke 48 orduan.

Ostalariak:

- **Eskortako hegazti guztiak dira erasanik handiena izaten dutenak.**
- **Hegazti basati urtarrek**, anatidoek esaterako (ahateak, antzarak, beltzargak, etab.) gaixotasuna izan dezakete, **sintomarik ez izan arren**. Gaixotasunaren gordailu isilak izan daitezke eta beste espezieei transmititu.
- **Espezie guztietako banakoak izan daitezke kutsakorrak**, aurrez birusaren azpimotetikiko esposizioan egon ez badira. Txerriak eta gizakia hegazti-birusez kutsatu daitezke eta azpimota berrientzako euskarriak izan.



Transmisioa:

- Kutsatutako hegaztien jariakinekin zuzeneko kontaktua, bereziki gorozkiekin.
- Elikagaia (pentsua), ura, ekipamendua eta arropa kutsatuta.
- Hegazti urtar eta itsas hegazti azpiklinikoak: birusa sartu dezakete hegazti-ustiategietan.
- Apurtutako arrautza kutsatuak: txitak kutsatu ditzakete inkubazioan.

Birusaren iturriak:

- Gorozkiak eta arnas jariakinak.
- Birus oso patogenoak bideragarriak izan daitezke denbora luzez (30 egunez ere bai) kutsatutako gorozkietan; ehunetan eta uretan ere bai.

Arrisku-faktoreak:

Gaixotasuna hainbat modutara hedatu daiteke, eta kontuan izan behar dira infekzio honi eusteko, besteak beste:

- Ustiategietan gaixo dauden hegaztiak sartzea edo birusa duten hegazti basatiekin harreman zuzena izatea.
- Hegazti basatien kutsatutako gorozkiak egotea baserriaren inguruan, eta oinetakoen edo arroparen eta ekipamenduen bidez nabeetan sartzea.
- Karraskariak edo nabeetan sartzen diren hegazti basatiak, pentsuak edo ohantzea.
- Eskortako hegaztien ura edo pentsua kontsumitzen duten hegazti basati eramaileak.

- Ustiategien artean eta barruan ibiltzen diren ibilgailuak (pentsuaren kamioia).
- Baserrian partekatzen diren ekipamenduak eta ibilgailuak, estalpeak, askak... behar bezala ez garbitzea edo desinfektatzea.

2. DIAGNOSTIKOA

Eskortako hegaztiak dituzten guztiek gertutik zaindu behar dituzte gaixotasunaren edozein arrasto hautemateko eta zalantzaren bat izanez gero, bere albaitari profesionalari aholkua eskatu behar diote berehala. Inkubazio-aldia 3 eta 5 egun artekoa da.

Diagnostiko klinikoa

HGOP askotan **hilgarria da eskortako hegaztietan, batez ere oiloetan. Beste hegazti espezie batzuetan**, indioilarretan esaterako, oiloen antzeko sintomak eta lesioak izaten dira, baina litekeena da **hain nabariak ez izatea**.

HGOP duten ahate eta antzarek, gorozkietan birusa kanporatu dezakete baina inolako sintoma klinikorik eta lesiorik ez izan.

Jarraian daude eskortako hegaztien zeinu kliniko nagusiak laburbilduta, batez ere oiloenak.

- Kutsatutako hainbat hegazti nabe edo aireko espazio berean.
- Jateko gogoa galdu edo elikagaien kontsumoan murrizketa nabarmena.
- Aldaketak uraren kontsumoan.
- Ezohiko jokabidea: deskoordinazioa, oreka galdu, makurtu, erantzunik ez, buruko eta gorputzeko dardara; hego eroriak eta/edo oinak arrastaka; burua eta lepoa okertu. Depresio eta ahulezia handiak.
- Aurpegi-edema gandor eta gingil hanpatu eta zianotikoekin (burua handituta, gandor eta gingil ubel/urdirak).
- Ekimosia hanketan.
- Begiak itxita jariakinarekin.
- Arnasa hartzeko zailtasuna: ahotik hartu arnasa, eztula, doministikuak, borborra edo trikitraka.
- Sukarra edo gorputzeko tenperatura nabarmen igo.
- Arrautza askoz gutxiago errun.
- Gorozkiak: urtsuak eta kolorea galdutakoak.
- Bat-bateko heriotza: hildako hegazti kopurua bat-batean eta azkar hazi.

Lesioak oiloetan:

- Bat-bateko heriotzetan litekeena da lesiorik ez egotea.
- Muskulaturaren kongestio larria.
- Deshidratazioa.
- Azalpeko edema buruan eta aurpegian.
- Sudurretik eta ahotik jariakinak.
- Konjuntibako kongestio larria, batzuetan petekiarekin.
- Mukosa gehiegi exudatu trakeako lumenean edo trakeitis hemorragiko larria.
- Petekiak bularrezur barnean, gantz serosoan eta abdomenekoan, azalera serosoetan eta gorputz-barrunbean.
- Giltzurrunetako kongestio larria, batzuetan urato metaketekin tubuluetan.
- Hemorragiak eta endekapenak obulutegietan.
- Hemorragiak probentrikuluaren mintzaren azalera, batez ere arandoiaren junturan.

- Hemorragiak eta higadurak arandoiaren mintzean.
- Hemorragia-fokoak hesteen mintzeko ehun linfoideetan.

Irudiak



Ahulezia eta depresioa, [MAPA](#)
[MAPA](#)



Zianosia gandorrear eta *gingilean*,



Zianosia gandorrear eta *gingilean* [DEFRA](#)



Gorozki urtsuak, [MAPA](#)




Ekimosia hanketan, [MAPA](#)



Ekimosia hanketan, [DEFRA](#)

Hesteetako hemorragiak, [MAPA](#)



Kongestioa eta hemorragia bihotzean, [MAPA](#) Edema lepoan, [DEFRA](#)

Laginak hartzea:

Hegaztien gripearen susmoak zeinu klinikoaren behaketan oinarritu daitezke, baina diagnostikoa laborategiko proben bidez egiaztatzea behar da, birusaren isolamendua barne.

Birusa honela berreskura daiteke:

- hegazti biziak: orofaringeo exudatuak, trakealak edo estolderiak. Eginkariak, lagin gisa, hegazti txikien kasuan, estolderia-laginak praktikoak ez badira (adibidez, ez hegaztiari kalterik egin gabe bildu daitezke).
- hegazti hilak: orofaringeo, trakeal eta estolderia exudatuak (edo hesteetako edukia) eta organoen laginak (trakea, birrikak, aireko zakuak, hestea, barea, giltzurruna, garuna, gibela eta bihotza).
- Arrautza enbrioatuak: hemaglutinazio-jarduerak adierazten du influenza.

Gaixotasuna baieztatzeko edo baztertzeko, hegazti gaixoen edo hegazti berrien 5 gorpu bilduko dira. hilak, edo, bestela, 20 hegaztiren binakako laginak hartuko dira:

- Serum-laginak
- Kloako-isipua birusentzako garraiobidean: lagin nahikoa izan beharko dute (optimoa 1g)
- Isipu orofaringeo birusentzako garraiobidean

Isipuk lortzen dituzten gorpuak duela gutxi hil diren hegaztienak izan beharko dira. edo larriki gaixorik edo hilzorian egotea eta errukiz sakrifikatu izana.

3. HIGIENE-NEURRI OROKORRAK

- **Oinarrizko higie-neurriak hartu behar dira** hegaztiekin ibili ondoren, **batez ere eskuak garbitu behar dira** xaboi desinfektatzaileekin.
- **Babesteko arropa eskusiboa** erabili behar da (babesteko maskara, buzoa, eskularruak eta betaurrekoak).
- **Ustiatetia sartzan diren pertsonak kontrolatu behar dira**, baita hegaztiekin ibiltzen direnen kopurua ere.
- **Langile guztiak:**
 - **Sentsibilizatuta eta trebatuta egongo dira higie-praktika egokietan.**
 - **Beste ustiatetietako hegaztiak** ikustera joatea eta harremanak izatea **saihestuko du.**
- **Baserriaren ingurua** garbi eta ordenatuta mantenduko da, belar txarrak kontrolpean izango dira, txoriak eta karraskariak saihesteko.
- Hegazti-ustiatetietan hegazti basatiak eta karraskariak **sartzea saihestuko da.**

4. SUSMOA DAGOENKO JARDUKETAK

4.1. JAKINARAZPENA

Hegaztien ustiatetikotitularrak edo arduradunak animalietan anomaliak hautemanez gero (diagnostiko klinikoan aipatutako sintomak, heriotzak, jateko gogorik eza...) al baitariari (landakoari) jakinaraziko dio eta honek gaixotasunaren susmoa bada, berehala jakinaraziko dio dagokion Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari.

Jakinarazpena egitean kontuan izan behar da indarrean den araudia:

- ✓ **Animalien osasunaren 8/2003 Legeko 5. artikulua** hau dio (BOE 99. zk., 2003ko apirilak 25):
 - ***Pertsona fisiko edo juridiko orok, publiko edo pribatu izan, eskudun agintaritzari berehala jakinarazi beharko dizkio, ezarritako forman eta epeetan, ezagutzen dituen gaixotasun epizootikoen foku guztiak, edo birulentzia berezia, muturreko larritasuna edo hedapen azkarra dutelako etxeo edo basoko animaliak kutsatzeko arriskua edo osasun publikoarentzako arriskua duten gaixotasunak(...). Ezarri daitekeen araudian berariazko epe bat aurreikusten ez bada, **gehienez ere 24 ordukoa** izango da nahitaez aitortu beharreko gaixotasuna bada.***
- ✓ **Gaixotasuna kontrolatzeko neurriak ahalik eta lasterren abian jartzea da xedea.** Erantzun hau ustiatetikotitularren eta al baitari klinikoan jarduketaren mende dago, hein handi batean.

Lurralde bakoitzeko foru-aldundietako nekazaritza sailtako abeltzaintza zerbitzuek ezarritako protokoloa hasiko dute eta ustiatetia lagina jasotzeaz eta EAEko laborategi ofizialera igortzeaz arduratuko dira, analizatu ditzaten.

- **ARABA:** Probintzia plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz-**945 18 18 18**
- **BIZKAIA:** Lehendakari Agirre etorb. 9, 48014 Bilbao-**944 066 828**
- **GIPUZKOA:** Gipuzkoa plaza z/g, 20004 Donostia-San Sebastián-**943 112 042**

4.2. BIOSEGURTASUNeko NEURRIAK

Biosegurtasuna esatean ustiategiko egiturazko neurriez ari gara, baita ustiategietan gaixotasun infekziotsu-kutsakorrek eta parasitarioak sartzetik eta hedatzetik animaliak babesteko alderdiak ere. Birusa hedatzea saihesteko **funtsezko alderdia** da biosegurtasuneko neurri batzuk hartzea.

Gida honetan planteatutako kasuetan eta ikuspegi praktikotik, beharrezkoa da kontuan izatea:

- **Hegazti-gripea hedatzeko arriskua oso handia da.**
- **Eskortako hegaztien hazle guztiek (ehizarako hegaztiak, urtarrak eta etxeakoak barne) neurri egoki eta bideragarri guztiak hartu behar dituzte gaixotasuna EZ dela ustiategi horretan eta ingurukoetan hedatuko bermatze aldera; ahalik eta neurririk zorrotzenak izan beharko dira.**

Gaixotasunaren susmoa izanez gero, biosegurtasuneko neurriak hartzeak saihestu egingo du ustiategi susmagarritik gaixotasuna hedatzea.

Hiru motako neurriak dira:

- a) **Isolamendu-neurriak.**
- b) **Mugimenduen kontrola.**
- c) **Garbiketa eta desinfekzioa.**

a) Isolamendu-neurriak

- ◆ **Ustiategi susmagarria bisitatu aurretik:** hegazti-ustiategi batean sartzean, beharrezkoa izango da arropa eta oinetako eskusaboiak erabiltzea infekziorik ez sartzeko edo ez zabaltzeko.
 - Lan-jantziak nabe bakoitzerako eskusaboiak izan behar dute, eta oinetakoak erabili behar dira loteen edo estalpeen artean mugitzerakoan.
 - Onartutako maskarak erabili beharko dira.
 - Arropa eta oinetakoak ez dira beste baserri edo ustiategi batean erabiliko eta baserrian geratuko dira, bertan kudeatuko baitira.
 - Gerora desinfektatzeko arazoak dituzten elementuak (argazki-kamerak, paperak, telefono mugikorra, agendak, etab.) ez dira ustiategian sartu beharko.
- ◆ **Ibilgailuak** birusa mugitzeko bidea izan daitezke, eta, horregatik, ustiategitik kanpo utzi beharko dira.
- ◆ **Etxeko ahate eta antzarak izanez gero, oiloengandik erabat berezita eduki**, askotan ez baitute gaixotasun-zantzurik izaten, baina oilaskoei, indioilarrei edo beste eskortako hegazti espezie batzuei transmititu diezaiekete.
- ◆ **Baserrian lan egiten duten langile guztiek eta bisitariak** baserritik atera ezin diren arropa, oinetako eta txano eskusaboiak erabiliko dituzte. Arropa garbia ahalik eta gutxien ukitzeko, zati garbia duen aldagela bat eta zati zikina duen beste bat fisikoki zatitu beharko dira, ahal izanez gero. Eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko instalazioak izan behar dira.
- ◆ Barrutian sartzen diren **bisitari eta ibilgailu guztien erregistro egokia mantendu behar da:**

harremanetarako datuen izenak, datak, orduak eta bisitaren asmoa

- ◆ **Hegaztiak eta karraskariak baserrira sartzea saihestu behar da:** gomendagarria da karraskariak eta izurriteak kontrolatzeko sistema eraginkorra izatea. Hegazti basatiak sar ez daitezzen, hegazti-sareak erabil daitezke. Pentsuaren siloak eta edukiontzia garbitu, erregulartasunez mantendu eta behar bezala zigilatu behar dira, karraskariak eta hegazti basatiak pentsuetara sar ez daitezzen eta kutsa ez ditzaten.
 - ◆ • **Presio bidezko garbiketa-ekipoak**, eskuilak, mahukak, ura eta **botetarako onartutako desinfektatzailea izan behar dira**, eta erabili behar dituzten langileek eskura izan behar dituzte. Nabe edo baserri bakoitzaren sarreran eta irteeran **pedilubioak instalatu behar dira**, onartutako desinfektatzaileak erabiliz. Ziurtatu egin behar da bisitari guztiak erabiltzen dituztela ibilgailuak, ekipoak eta botak garbitzeko baserrira sartu aurretik eta baserritik eta oilategi edo esparruetatik irtetean.
 - ◆ **Kutxa, edukiontzi, arrautzentzako plastikozko erretilu** eta gainerako ekipo guztiak garbitu eta desinfektatu behar dira, erabili aurretik eta ondoren, eta, ahal ez bada, suntsitu. Ez eraman ekipamendurik hegazti-nabe ezberdinetara aurretik garbitu eta desinfektatu gabe. Hau injekzio eta dosifikazio ekipoei ere aplikatzen zaie.
 - ◆ Bidaia bakoitzaren ondoren, eskortako hegaztiak, hegazti-produktuak edo -azpiproduktuak garraiatu dituzten **ibilgailu guztiak garbitu eta desinfektatu behar dira**. Ez ahaztu gurpilak behar bezala garbitzea. Ibilgailuentzako **desinfekzio-pasabideak izan behar dira**.
 - ◆ **Ustiatagirako sarbideak**, aparkalekuak, eraikinen inguruko eremuak eta biltegiratze-eremuak garbi eta ordenatuta eta ondo mantenduta eduki behar dira, une oro. Hala eginez gero, hegaztiak eta animalia basatiak ez dira erakarriko instalazioetara eta ez dira sartuko eraikin eta biltegietan. Ibilgailuak kutsatzeko arriskua ere murriztuko da. Era berean, ur geldia pilatzea saihestu behar da, eta erori den elikagai oro kendu behar da hegazti basatiak ez erakartzeko.
 - ◆ **Oilategi edo estalpe guztiak egoera onean eduki behar dira**, hegazti basatiek habiarik egin ez dezaten eta geratu ez daitezzen eta eraikinaren barrura sartzerik ez dutela bermatzeko. Sabaian edo hormetan zuloak egotea saihestu behar da. Edozein irekidura sare edo sare-begi egoki batez estali behar da. Sare horrek gehienez 25 mm-ko sare-begia izan behardu, hegazti basatiak sar ez daitezzen.
 - ◆ **Hegazti-hazkuntza aire zabalean egiten den kasuetan**, elikagaiak banatzeak hegazti basatiak erakar ditzake; beraz, zeregin hori korten barruan egin beharko da, batzuen eta besteen arteko kontaktu-arriskua saihesteko. Aire zabaleko eskortako hegazti-hazkuntza zure autonomia-erkidegoko agintariak debekurik ezarri ez duten lekuetan bakarrik egin daiteke.
- ◆ **Hegazti basatiekin kontaktuan egon den urik edo elikagairik ez eman eskortako hegaztiei.** Animaliei ematen dizkiezun elikagaien jatorria eta osasun-egoera ziurtatu behar dituzu. Ur-hodiak eta edontziak aldi-aldi garbitu behar dira. Ongizateagatik hegaztiak barruan edukitzerik ez badago, murriztu hegazti basatiek erabil ditzaketen ur-iturrietarako sarbidea, eta murriztu hegazti basatiei beren edontzi-sistemetara sartzea.
- ◆ **Azpiproduktuek**, hala nola, hondatutako arrautzek, hildako hegaztiek, zabor guztiak eta simaurrak, gaixotasunak izan ditzakete. Azkar eta modu egokian kendu itzazu.

- ◆ **Ustiatagia utzi aurretik, albaitariak** sudurrari behin eta berriz zintz egin beharko diote, birusa transmititu ez dezaten.
- ◆ **Baserrira bisitatu ondoren, albaitariak ez dute beste baserririk bisitatu beharko 3 egunetan.**

b) Mugimenduen kontrola

- ◆ **Abeltzainek pentsua sartzea** eta kontsumorako edo txitatzeako arrautzak, oilo-zirina edo beste edozein produktu ateratzea saihestuko dute, agintari eskudunen jarraibideak jaso arte (lurraldeko abeltzaintza-zerbitzuak). Ezinezkoa bada, barrutian sartzen diren bisitari eta ibilgailu guztiak ondo erregistratu beharko dira (harremanetarako datuen izenak, bisitaren datak, orduak eta asmoa), infekzioaren jatorria azkar jarraitzeko, hala badagokio.
- ◆ **Baserrirako sarbideak** behar bezala itxita egongo dira, ibilgailuak edo pertsonak hurbiltzea saihesteko. Baserriko nabeetako ateak giltzaz itxita egon beharko dira une oro.
- ◆ **Ustiatagiko langileek ez dute beste baserririk bisitatuko**, eta hegazti-hazkuntzarekin zerikusia duten pertsonekin ez dira egongo behin betiko emaitzak lortu arte.
- ◆ Baserrian eskortako hegaztiak badaude, **zaintzapean egon beharko dute** leku itxi batean, emaitzak lortu arte.

c) Garbiketa eta desinfekzioa

Desinfektatzaileen eta desinfekzio-prozeduren aukeraketa ustiatagien, ibilgailuen eta tratatuko diren objektuen izaeraren arabera izango da. Desinfektatzaileak agintari eskudunak baimenduko ditu. Hauek dira erabili behar diren desinfektatzaileak, produktu kimikoak eta/edo prozedurak:

	Desinfektatzaileak	Erabilera eta hartu beharreko neurriak
Materialak (Adb.: oilategiak, ekipoak, etxebizitzak, makinak, ibilgailuak)	Agente oxidatzailea: <ul style="list-style-type: none"> - Sodio hipokloritoa (lixiba), % 2ko kloro aktiboko disoluzioa - Kaltzio hipoklorito solidoa edo hautsezkoa, eskuragarri dagoen kloroaren % 2-3raino diluitzea - Virkon® % 2 Alkali: <ul style="list-style-type: none"> - Sodio hidroxidoa % 2an 	Kloro-disoluzioak ez dira nahastu behar amoniakoa duten garbiketaproduktuekin. Ez da egokia material organikoetarako <ul style="list-style-type: none"> - Na₂CO₃: material organikoak daudenean erabiltzeko gomendatzen da. - HCl: korrosiboa, beste produktu kimikorik ez badago

	<ul style="list-style-type: none"> - - Sodio karbonatoa (Na₂CO₃) % 4an <p>Azidoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - - Azido klorhidrikoa (HCl) % 2an - Azido zitrikoa: % 0.2 	bakarrik erabili.
Fumigazioa	Gas formaldehidoa	Toxikoa, soilik beste produktu batzuk erabili ezin badira. Esposizio-denbora 15-24 ordu

- ◆ **Bisita egin ondoren salbuespenez ustiatetik aterako diren ekipoak edo elementuak sartzen badira**, alde aurretik desinfektatzeko aukeraren arabera sailkatu beharko dira:
 - Arropa poltsetan aterako da eta lixibaz desinfektatuko da.
 - Bestelako objektuak gas formaldehidoz desinfektatu ahal izango dira (argazki-kamera, telefonoak, material kirurgikoa).
 - Ezinbestekoak ez diren objektuak ustiatetian utziko dira (boligrafoak).
- ◆ **Laginak** kanpoan desinfektatu ahal izango den kutxa batean paketatuko dira, laborategira bidali aurretik, desinfektatzaile onartu batekin.
- ◆ **Ustiatetira ibilgailuak sartzen badira**, horiek desinfektatu egin behar dira baserritik irten aurretik, desinfektatzaileak erabiliz fumigatuta.

4.3. USTIATEGIKO LANGILEEN SEGURTASUN- ETA HIGIENE-NEURRIAK

Hegazti-gripearen birusak gizakiengan eragindako infekzioa **arraroa da, baina gerta daiteke**. Gizakietan, hegazti-gripearen ezaugarri kliniko nagusiak 38 gradutik gorako sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, eztula eta ondoez orokorra dira.

Hori dela eta, eskortako hegaztiak dituzten pertsonak **kontu handiz ibili** behar dute, bereziki adierazitako arrisku-eremuetan, baldin eta kasu hauek detektatu badira:

Ezagutzen ez diren arrazoiengatik gaixotutako edo hildako hegazti bat ikusten baduzu eta gaixotasun baten susmoa baduzu, ez ukitu, eta horren berri eman albaitaritza-agintariei, beharrezko analisiak egin ditzaten.

- ☒ Eskortako hegaztiak **ez dira etxeetan sartu behar**, eta **ez zaie hurrei haiekin jolasten utzi** behar.
- ☒ **Higiene pertsonal zorrotza izan behar da**, infektatu dezaken materiala arnastea eta irenstea saihesteko. Desinfektatzaileak dituzten xaboiak erabili behar dira, eta ustiatetik irtetea sudurrari zintz egin. Gomendagarria da, halaber, oinetakoak eta eskortako lan-tresnak etxetik kanpo uztea, eta xaboiarekin eta desinfektatzaileekin (lixiba, esaterako) garbitzea arrastaka eraman ditzaketen zikinkeria eta gorozkiak.

- ◆ Ustiatetikoko **ingurune kutsatuarekiko esposizioa mugatu behar da** animalien laginak biltzeko behar den denborara.
- ◆ **Susmoa zegoen ustiatetian gaixotasunaren presentzia egiaztatzen bada**, ustiatetikoko

langile guztiek eta albaitariak harremanetan jarri beharko dute osasun-zentroarekin, abeltzaintza-ustiategiaren inguruabarrak adierazteko, eta, medikuak aginduta, tratamendu profilaktikoa ezartzeko antibiralekin, beharrezkotzat jotzen bada.